# BESTELAKO XEDAPENAK

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 1281

*EBAZPENA, 2014ko martxoaren 4koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, ehizan jarduteko gaitasuna egiaztatzeko 2014ko otsaileko deialdian azterketa gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda onestekoa.*

Ehizan jarduteko gaitasuna egiaztatzeko azterketarako 2014ko lehenengo deialdia egin zuen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2013ko abenduaren 20ko Aginduaren zazpigarren puntuak xedatutakoa betez (EHAA, 5. zk., 2014ko urtarrilaren 9koa), eta epaimahai kalifikatzaileek proposatuta, honako hau.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onestea ehizan jarduteko gaitasuna egiaztatzeko 2014ko lehenengo deialdiko azterketa gainditu duten izangaien zerrenda. Zerrenda hori lurralde bakoitzeko azterketak epaitu dituzten Epaimahaiek osatu dute.

Bigarrena.– Zerrenda hori Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietako iragarki-oholetan eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren web orrian (www.nasdap.ejgv.euskadi.net) jar dadila agintzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gorako errekurtsoa jar diezaiokete Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 4a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.